



Egungo egoera dela-eta aurretik izena eman ez zuten enpresak orain interesa badute **IZENA EMATEA BERRIRO IREKI** da

FENAVIN 2022

Informazio gehiago:

Maite Jaio

94 470 65 00

agro@camarabilbao.com

2022eko maiatzak 10-12

Tokia: Ciudad Realeko azoka-eremuko aretoan

Maiztasuna: bi urtetik behin

Norentzat: mahastizaintza- eta ardogintza-indus-
triako profesionalak

Izena emateko OHIZ KANPOKO epea:

2021eko URRIaren 27a

Azokaren webgunea: www.fenavin.com

Parte hartzeko kostua:

Stand partekatua: 750 € + 21% BEZ

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko elikagaien industriak kanpoan sustatzeko jardueren artean, **FENAVIN 2022** azokan euskal enpresen partaidetza taldekakua antolatu du, HAZI Fundazioaren bidez. Azoka Ciudad Realen ospatuko da maiatzaren 10etik 12ra arte.

Egungo egoera dela eta, deialdi honetan adierazten diren datu guztiak behin betiko egiaztatu gabe daude, dena COVID-19ak eragindako osasun baldintzen eta azokaren antolakuntzak zehazten duen segurtasun protokoloaren menpe baitago; aurrerago egongo dira eskuragarri.

AZOKAREN IZAERA

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

Fenavin 2022

Mahastizaintza- eta ardogintza-industriako profesionalei zuzendutako azoka da. **Mota guztietako upategientzat** da interesgarria azoka hau, nahiz atzerrian inportatzaile bat dutenentzat nahiz kontakturik ez dutenentzat, bisitari gehienak nazioartekoak baitira.

Azoka profesionalentzat baino ez denez, sektoreko erosle profesional ugari etortzen da. Atzerriko erosleekin topaketak eskatzeko aukera ere eskaintzen du azokak eta horri esker, azokak irauten duen hiru egunetan bileren agenda ixteko aukera dago, “*Contacte con compradores*” programaren bidez.

Stand Euskadi Basque Country

Eusko Jaurlariak 180 m² inguru izango ditu FENAVIN 2022 azokan **stand partekatuan** parte hartu nahi duten **Euskadiko mahastizaintza- eta ardogintza-industriako enpresentzat**.

Euskal ordezkariak enpresen gehieneko kopuru bat ordezkatu du. Enpresa interesatu gehiago egonez gero, **izena emateko hurrenkeraren arabera (dokumentu guztiak aurkeztutakoan amaituko da izen-ematea) egingo da hautaketa eta ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emateko datatzat.**

Eusko Jaurlaritzak azoka hau antolatzeko, gutxieneko partaide-kopurua beharko da.

FENAVIN AZOKAKO DATUAK

- Erakustokia: 30.000 m²
- Azokaren ordutegia:
 - Maiatzak 10 eta 11: 9.00etatik 19.00ak arte
 - Maiatzak 12: 9.00etatik 16.00ak arte
- 2019ko bisitariak: 52.613 pertsona
- 2019ko parte hartzea:
 - 1.361 enpresa 90 herrialdekoak
- Azokaren webgunea: www.fenavin.com

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

Egoitza Euskadin duten eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleak baino ezingo dira aurkeztu.

Azoka egin aurretik

- Enpresa erakusketariak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du; **Euskadiko pabilioian sartu direla jakinarazi ondoren, ezin izango dute baja eman.** Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Azoka hasi bezperan, enpresak bertan egon beharko du adierazten zaion orduan, salgaiak jaso eta azoka inauguratu baino lehen standetako dekorazioari azken ukituak emateko.

Azokan zehar

- Erakusten diren produktuek **soilik Euskadikoak izan beharko dute.** Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- **Enpresak standean egon beharko du** azokak dirauen egun guztietan eta azoka zabalik dagoen ordu guztietan. Enpresaren bat azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera...) Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerrako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.

Halaber, enpresa erakusketari batek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak Eusko Jaurlaritzak, taldekako presentziaren antolatzaile legez, antolatzaileen zigor ekonomikoren bat jasoko balu, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaieke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzean, enpresa bakoitzak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio-inkesta** egin beharko dute; inkesta bete eta entregatu egin beharko dute antolakuntzaren jarraibideen arabera.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA ZENBATEKOA

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

Parte hartzeko eredia

Eusko Jaurlaritzako standean izango diren enpresa guztiak elikagaien industriako euskal ekoizleak izango dira, eta kalitatezko ardoak (JD dutenak), JD duen txakolina edo beste edari alkoholodun batzuk ekoitziko dituzte.

- **PARTEKATUTAKO stand** eredia

(denentzako gune bakarra, enpresen artean banaketarik gabe)

Stand Partekatuan banatuko dira Fenavin 2022an parte hartuko duten/inskribatuta dauden upategiak, betiere COVID-19ak sortutako osasun-baldintzek eta azoka-antolatzailearen segurtasun-protokoloek ahalbidetzen badute. Protokolo horiek aurrerago egongo dira eskuragarri.

Segurtasun-distantziaren arabera, stand partekatuetan parte hartzen duten upeltegiak ezin badira banatu, inskripzio-ordenaren arabera, banakako stand-aukera emango zaie upeltegiei, eta stand-alaketari dagokion kostuaren igoera adieraziko zaie.

Parte hartzearen zenbatekoa

Fenavin 2022 Azokan parte hartzeak kostu hau izango du:

- **Stand partekatuta:**

750 € + %21 BEZa = 907,5 €



EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

Izena emateko epea: 2021eko urriaren 27a

Leku-kopuru mugatua denez gero, gomendatzen dugu izena emateko formularioa eta ordainagiria ahalik eta azkarren igortzea Maite Jaiori helbide honetara: agro@camabilbao.com

Enpresa parte-hartzaileak **izen-emateko dokumentu** guztiak (izena emateko formularioa, ordainagiria eta produktuaren jatorriari buruzko zinpeko adierazpena) **jaso diren hurrenkera berean hautatuko dira.**

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatutako informaziotik zuzenean ateratako datuak jarriko dira azokaren katalogo ofizialean eta sustepenerako erabiliko diren gainerako elementuetan.

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontuaren zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: **"Enpresaren izena + FENAVIN 2022"**

Izena emateko epea amaitu eta zure parte hartzea baieztatu ondoren, HAZI Fundazioko Finantza sailak faktura bat igorriko dizu dagokion kopuruarekin.

ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI



Enpresa eskatzaileek **nahitaez aurkeztu beharko dute** lehengaiaren jatorriari buruzko zinpeko adierazpena sinatuta eta zigilatuta.

IZENA EMATEKO EPEA: 2021eko urriaren 27a

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

GARRANTZITZUA:

Enpresa partaideak izen-emateko dokumentuak guztiak (izena emateko formularioa, ordainagiria eta produktuaren jatorriari buruzko zinpeko adierazpena) jaso diren hurrenkera berean hautatuko dira. Ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emateko datatzat.

Izena emateko formularioa betetzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duenik; izan ere, horretarako beharrezkoa da gutxieneko enpresa-kopuru bat egotea. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du izen-ematea onartu duela.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKO JAURLARITZAREN STANDEAN EGONGO DEN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arazoak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko kasu hauek besterik ez dira izango kontuan::

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa azokaren antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutakoa baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek izena eman aurretik ordaindutako kuota berreskuratzeko eskubidea izango dute.
- Ezinbesteko kasuengatik edo gutxieneko partaide kopurua osatu ez delako Eusko Jaurlaritzak azokan ez parte hartzea erabakiz gero, enpresek ordaindutakoaren %100 berreskuratzeko eskubidea izango dute.

ESKEINITAKO ZERBITZUAK

FENAVIN
Feria Nacional del Vino

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak zerbitzu hauek eskainiko ditu HAZI Fundazioaren bidez:

Gunearen kontratazioa

Sustepenerako gune bat izango da eta PARTEKATUTAKO STANDetan banatuta egongo da.

Dekorazioa

Standeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak bateratuak izango dira Euskal Herriko standeko erakusketari guztientzat eta elementu hauek izango dituzte:

- **Stand Partekatua:** erakusmahaia eta taburetea, enpresa bakoitzeko errotulua; bileretarako mahaiak, biltegia hozkailuekin eta denek erabiltzeko arraska; eta elektrizitate-konexioa.

Oharra: Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo behar elektrikoetan aldaketak egin behar izanez gero, eta aldaketa horien ondorioz elementu horiek gehitu edo aldatu behar izanez gero, erakusketari bakoitzak zuzenean kontratatuko ditu eta erakusketari bakoitzaren gain izango da gastua; dekoratzaileak zuzenean fakturatuko du gastu hori.

Pabilioiaren mantentze-lanak (garbiketa, argindarra, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketako zerbitzuez, argindarrak, urak... eta, oro har, standak behar bezala mantentzeko lan guztiez. Dena dela, enpresa bakoitzaren ardura izango da bere standak zeharo garbi mantentzea.

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak garraio bateratua antolatuko du garraiolariak adierazitako puntu batetik standean entregatu arte.

Salgaiak bidaltzearen gastua garraiolariak fakturatuko du eta enpresa erakusketariaren gain izango da erabat.

Dagokionean emango dira garraio-enpresa esleipendunaren datuak.

Eusko Jaurlaritza ez da arduratuko taldeko garraio honetatik kanpo bidalitako salgaien segurtasunaz eta merkantzia horiek jasotzeaz ere ez.

Enpresak han egon beharko dira salgaiak jasotzeko, adierazitako orduan, eta azoka inauguratu baino lehen standetako dekorazioari azken ukituak emateko. Salgaiak jasotzera adierazitako orduan ez datozen enpresak zigortu egin daitezke.

Kopak eta listu-ontziak

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du enpresentzat kopak eta listu-ontziak alokatzea, baina alokairuaren zenbatekoa erakusketarien kargu izango da. Azokak zuzenean fakturatuko dio zerbitzu hau erakusketariari.

Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapide guztiak egingo ditu azokan parte hartu behar duten enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean ager daitezen, ekitaldiko erakusketari partaide guztiak agertzen baitira katalogo horretan (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).